



499 ZB.KO DEKRETUA

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamaikako maiatzaren 26an

Gaia: OIARTZUNGO H.A.I. ALT-4 "OLALDE"KO URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA, jendaurrean zabaldu gabeko akordiozko prozedura bidez kontratatzeke espedientea. Kontratuaren esleipena.

Alkateak 2011ko apirilaren 5ean emandako 271 zb.ko Dekretu bidez, Oiartzungo H.A.I. ALT-4 "OLALDE"ko urbanizazio proiektuan sartutako obren zuzendaritza fakultatiboa kontratatzeke espedientea onartu zuen, jendaurrean zabaldu gabeko akordiozko prozedura martxan jarriz eta parte hartzeke gonbidapena hiru enpresei bidaliz.

Aipatu kontratazioan proposamenak aurkezteke epean ESTUDIO URGARI SLP enpresak bakarrik aurkeztu du proposamena, 56.527,90 eurokoa (BEZ barne).

2011ko maiatzaren 11ko Alkatearen 389 zb.ko Dekretu bidez Oiartzungo H.A.I. ALT-4 "OLALDE"ko urbanizazio proiektuan sartutako obren zuzendaritza fakultatiboa kontratatzeke prozeduran proposamen bakarra eta beraz onuragarriena ESTUDIO URGARI SLP enpresarena zela erabaki zen.

Sektore Publikoaren Kontratazioa arautzen duen 2007ko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.2 artikuluekin adostasunean hamar egun balioduneko epea eman zitzaion enpresari behin-betiko 2.395,25 euroko bermea eratzeko eta dokumentazioa aurkezteke, eta hala egin du ESTUDIO URGARI SLP enpresak 2011ko maiatzaren 24an.

ESTUDIO URGARI SLP enpresari esleitzea proposatzen da, zeinaren eskaintza 56.527,90 eurokoa den (BEZ barne), osotasunean interes publikoetarako abantaila gehien dituen eskaintza ekonomikoa dela iritzita, betiere pleguetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera Udal arkitekto teknikoak egindako eta espedientearen jasota dauden balorazioetan oinarrituta.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreke Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legeak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzean, zera **ERABAKITZEN DUT**:

1. OIARTZUNGO H.A.I. ALT-4 "OLALDE"KO URBANIZAZIO PROIEKTUAN SARTUTAKO OBREN ZUZENDARITZA FAKULTATIBOAREN kontratua ESTUDIO URGARI SLP enpresari



OIARTZUNGO
UDALA

esleitzea, 56.527,90 euroko prezioarekin (BEZ barne) eta 30 hilabeteko gauzatze-epearekin.

Ordainketa udal aurrekontuko 1 0301 600 439 00 03 (A 922-2011) diru-atalaren kargura egingo da.

Kontratu hau obra kontratuaren osagarri denez, obra kontratuaren iraupen berdina izango du, gehi kontratuaren likidazioarekin lotutako lanak egiteko beharrezko epea. Kontratu osagarri hau ez da hasiko obra kontratua egikaritzen hasi arte, beti ere bere objektuak edo edukiak besterik agintzen ez badu.

2. Kontratuaren formalizazioa esleipena jakinarazten denetik hurrengo hamabost egun baliodunetan egingo da.
3. Erabaki hau enpresa esleipendunari jakinaraztea.
4. Esleipen hau udalaren kontratatzaileen profilean argitaraztea.
5. Jarritako behin-behineko bermea ESTUDIO URGARI SLP-ri itzultzea.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

